

EHTE TXISTURAKO KONPOSIZIO LEHIAKETA 2022

Euskal Herriko Txistulari Elkartek, txisturako zein bere familia instrumentuentzako obra berrien sorkuntza sustatzeko asmotan, 2022ko EHTE Txisturako Konposizio Lehiaketa antolatu du.


Adin eta herrialde ezberdineko konpositoreek parte hartu dezakete lehiaketan.

Hiru izango dira konpositore aukeratuak. Aukeraturiko konpositoreek Euskal Herriko Txistulari Elkartearen izenean obra berri bat idazteko enkargua jasoko dute ondorengo baldintzetan:

- 2.000€ko enkargu bat epaimahaiak proposaturiko talde txiki baterako obra bat idazteko (gehienez 6 musikariko taldea, barnean gutxienez txistulari bat duelarik).
- 1.500€ko enkargu bat epaimahaiak proposaturiko talde txiki baterako obra bat idazteko (gehienez 4 musikariko taldea, barnean gutxienez txistulari bat duelarik).
- 1.500€ko enkargu bat Trio Zukan hirukotearentzat obra bat idazteko (txistulari bat, akordeoia eta perkusiorako). Enkargu hau Trio Zukanek babestua dago.

OINARRIAK

- Egile bakoitzak proposamen bakar bat bidal dezake.
- Deialdian parte hartzeko ez da inolako tasarik ordaindu behar.
- Dokumentazio guztia emailaz bidali beharko da konposiziolehiaketa@txistulari.eus helbidera, 2022ko urriaren 15a jasotzeko azken eguna izanik.
- Data hau baino beranduago jasotako edo osatu gabeko proposamenak ez dira aintzat hartuko.
- Partitura eta bestelako agiriak .pdf formatuan bidali beharko dira.
- Grabazio eta audioak .mp3/wav/aiff formatuetan bidali beharko dira.
- Artxiboen tamaina 10mb baino handiagoa bada laino zerbitzuen bidez bidaltzea gomendatzen da.
- Aukeraturiko konpositoreek 2023ko ekainaren 1a baino lehen pieza berri bat idazteko konpromisoa hartuko dute.



EHTE TXISTURAKO KONPOSIZIO LEHIAKETA 2022

BIDALI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Egilearen lan ildoen erakusgarri den ganbera talderako idatziriko partitura eta grabazio bat (3-12 musikari artean); elektronikadun lanak ez dira onartuko.
- Egilearen biografia laburra (gehienez orrialde bat). Parte hartzailearen izen abizenak, NAN zenbakia, nazionalitatea eta jaiotze data agertzen direlarik.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaia hainbat txistulari eta konpositorek osatuko dute.
- Epaimahaiak instrumentuaren (txistua) inguruko eta enkarguaren inguruko beste edozein zalantza argituko dizkie konpositore aukeratuei.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

EMAITZAK

- Parte hartzaileei email bidez jakinaraziko zaie lehiaketaren emaitza 2022ko abenduaren 30a baino lehen.
- Emaitzak www.txistulari.eus webgunean ere argitaratuko dira.
- Edozein zalantza argitzeko idatzi konposiziolehiaketa@txistulari.eus helbidera.



euskal herriko txistulari elkarteak

ZKI
trio

kutxa kultur
kutxa FUNDAZIOA